

ERANSKINean justifikatuko da betetzen direla HAPOn artikulu hauek:

- art. 4.2.42.1: *Ezein eraikinetan ez da baimenduko keen irteera fatxadetan, patio komunetan, balkoi eta leihoetan instalatzea, nahiz eta irteera hori behin-behinekoa izan.*

- art 4.2.42.4: *Tutuak ez dira fatxadetatik ikusteko moduan joango, eta gutxienez metro bat altxatuko dira estalki altuenaren gainetik, gehienez zortzi (8) metroko distantziara dagoena.*

- Art. 4.2.50.1 *Fatxaden aldaketa: Ez-katalogaturiko eraikinetan, fatxada baten ezaugarrien aldaketari ekin ahal izango zaio, multzo arkitektonikoaren emaitza homogenea eta albokoekiko erlazioa bermatzen duen proiektu egoki baten arabera.*

- art. 4.2.50.3 *Fatxaden aldaketa: Zabaltzen itxitura anarkikoak egin izan diren eraikinetan, diseinu bateratu bat aurkeztea eska dezake Udalak haiek egokitzeko.*

- art.4.2.51.2: *Bide publikotik ikus daitekeen aire girotuko aparatuen instalazioak eraikinaren goitiko bistaren azterketa eskatuko du, eta fatxadaren estetikari gutxien kalte egiteko posizioan eta bere itxitura hautsi gabe instalatu ahal izango dira soilik.*

- art.4.2.51.3.: *Ezin izango dira galdarak, metagailuak, berogailuak, deposituak eta abar bezalako aparatuak instalatu balkoietan, zabaltzetan edo espazio publikoetarako fatxadetan. Kekanpaiaren keen eta galdaren errekuntzak sorturiko keen hustuketa bakoitza dagokion eta horretarako eraikinean berariaz egindako tutuari egoki konektatuta egingo da. Adierazitako dagokion eraikinean burutzea erabat ezinezkoa balitz, fatxadarako ke-irteera onartuko da soilik, deflektorea soilik ikusteko moduan, leku estrategikoetan eta betiere irizpide harmoniko eta homogeenarekin eraikinaren fatxada bererako irteeretan. Edozein kasutan, instalazioa Industria, Merkataritza eta Turismo Sailburuaren 2000ko uztailaren 12ko Aginduan (00/9/19ko EHAA), errekuntzaren gasen eta galdara eta gas-berogailuetatik datozen banakako instalazioen hustuketa eta bat datorren gainerako araudia erregulatzen duena, ezarritakoari jarraiki egingo da.*

*Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua da konbustio-produktuak ebakutzeko tximiniei aplikatu beharreko bat datorren egungo araudia, orokorrean estalkiraino beharra zehazten du. Bestela ere, instalazio termikoa berritzen bada, IT1.3.4.1.3.1-ek soilik aukera ematen du 5. mailako Nox isuriak dituzten galdara indibidualen irteera izateko fatxadaren bidez.*

*Halere, 2018ko irailaren 26ko Europear Direktiba indarrean sartuz gero, gladrak eta gas akumuladoreek 56mgr/kWh-ko baino gutxiagoko Nox emariak dituzte eskakizun. Beraz, galdarak 6NOx mailakoak beharko dute izan edo hobeak.*

- art. 4.2.52.: *Eraikinaren ezaugarriak direla-eta, arropa zabaltzeko lekua espazio publikotik ez ikusteko moduan ezin bada prestatu, arropa zabaltzeko leku horrek babes bisualeko sistema bat izan beharko du, zabalduriko arropa ikustea saihesten duena. Fatxadaren materialen osaerak eta tratamenduak osatu beharko dute sistema hori.*